

INGURUMEN HEZKUNTZA IRUÑA

# JASANGARRITASUN ESKOLA


2022ko UDABERRIA







T. 948 14 98 04 / Faxe: 948 42 09 84

[www.educacionambiental.pamplona.es](http://www.educacionambiental.pamplona.es)  
[educacionambiental@pamplona.es](mailto:educacionambiental@pamplona.es)

 [ingurumenhezkuntza.museoa](https://www.facebook.com/ingurumenhezkuntza.museoa)

 [IHMuseoalruna](https://twitter.com/IHMuseoalruna)

 [@ingurumenhezkuntzairuna](https://www.instagram.com/ingurumenhezkuntzairuna)

**Goizez**, asteartetik ostiralera. 10:00 - 13:00

**Arratsaldez**, asteartetik ostegunera. 18:00 - 20:00

Apirilaren 12tik 14ra eta maiatzaren 17tik 19ra  
goizeko ordutegia baizik ez, 10:00etatik 13:00etara.

#### **UDAKO ORDUTEGIA**

Ekainaren 15etik aurrera, Ingurumen Hezkuntzako Museoa  
goizez bakarrik dago zabalik, asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara.  
Uztailean Ingurumen Hezkuntzako Museoa itxita egonen da.

**Errotazarko k. z.g. 31014 Iruña**

## HIRI-NATURAREKIN

### BAT EGINEZ

Udaberriak naturara hurbildu eta naturaz gozatzeraz gonbit egiten digu; planetarekin berriz bat egin eta harekin dugun harremana birplanteatzeko aukera bat.

Udaberriko Jasangarritasun Eskola saiatu da birkonektatzeko bide hori laguntzen duen jarduera-proposamen bat bateratzen, Iruñeko ingurune naturaletara hainbat irteera eginez.

Urtaro honetan, Museoak ere ateak zabalduko dizkio herritarren zientziari, egungo ingurumen-erronkei buruzko hausnarketari eta “Arimarako begiradak. Mundu jasangarriago baterantz” erakusketari.

### Jarduera guztiak osasun-arauekin bat eginen dira.

Gure hedabideak (webgunea, sare sozialak, buletin elektronikoa) erabiltzea gomendatzen dizuegu, gerta daitezkeen aldaketen berri izateko.

Jarduera guztiak doan dira parte-hartzaileentzat, baina diru publikoaren gastua eragiten dute.

Mesedez, egiaztatu libre zaudetela izena eman baino lehen.

Izan ere, bajek eragiten ahal dute itxarote-zerrendan daudenek ezin izatea hutsik geratutako lekuak bete.

## Aurkibidea

Herritarrak abian 07-08

Hitzaldi-solasaldiak 09-11

Lantegiak eta ikastaroak 12-13

Haurrendako lantegiak A. Santuan 14

Iruña berdea da 15-25

Ecozine 26

Argazki-eta marrazketa-lehiaketa 27-30

Erakusketak 31

Merkatu txikia 32-33

Museoa zeureganatu 34

# Apirila

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
				1	2	3
4	5 Erakusketaren aurkezpena Erak	6 Lore-banden lantegia * Arrotxapea: energia positiboko auzoa! Erak	7 Erak	8 Erak	9	10
11	12 Ibilaldia Elortz ibaian barna* Erak	13 Erak	14	15	16	17
18	19 ** Erak	20 ** Haurrendako lantegia (eusk.) Erak	21 ** Haurrendako lantegia (gazt.) Erak	22 Jostailuak trukatzeko merkatua Erak	23	24
25	26 Herritarren zientzia laborategia eta airearen kalitatea: nolako airea arnasten dugu? Erak	27 Bermi-konpostontzi-lantegia* Erak	28 Bizitxoko Erak	29	30	

\*Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Barruan kontsultatu.

\*\* Museoa goizez bakarrik dago zabalik.

**Erak** Erakusketa: Arimarako begiradak. Mundu jasangarriago baterantz.  
Apirilak 5 - Ekainak 24.

# Maiatza

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
2	<b>3</b> Hitzaldi-solasaldia: Arrotxapeko ikasleek klimaldaketarako egokitzapenean parte hartzen dute <b>Erak</b>	<b>4</b> Familiarteko lantegia: Gure hiria bir-naturalizatu (eusk.) <b>Erak</b>	<b>5</b> Mahai-ingurua: Nola integratzen da ingurumen-hezkuntza hezkuntza formalean? <b>Erak</b>	<b>6</b> <b>Erak</b>	<b>7</b> Berdetako istorioak*	<b>8</b>
9	<b>10</b> Irteera Iruñeko hegaziak ezagutzeko* <b>Erak</b>	<b>11</b> Familiarteko lantegia: Gure hiria bir-naturalizatu (gazt.) <b>Erak</b>	<b>12</b> Bizitxoko <b>Erak</b>	<b>13</b> <b>Erak</b>	<b>14</b>	<b>15</b>
<b>16</b> ECOZINE*	<b>17</b> ** ECOZINE*	<b>18</b> ** ECOZINE*	<b>19</b> ** ECOZINE*	<b>20</b>	<b>21</b>	<b>22</b>
<b>23</b>	<b>24</b> Dirurik gabeko truke-azoka txikia <b>Erak</b>	<b>25</b> Dirurik gabeko truke-azoka txikia <b>Erak</b>	<b>26</b> Dirurik gabeko truke-azoka txikia <b>Erak</b>	<b>27</b> Dirurik gabeko truke-azoka txikia <b>Erak</b>	<b>28</b> Atari zabaleko gimnastika*	<b>29</b>
<b>30</b>	<b>31</b> <b>Erak</b>					

\*Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Barruan kontsultatu.

\*\* Museoa goizez bakarrik dago zabalik.

**Erak** **Erakusketa:** Arimarako begiradak. Mundu jasangarriago baterantz. Apirilak 5 - Ekainak 24.

# Ekaina

Al	As	Az	Og	Or	Lr	Ig
		1 Sendabelarrei buruzko lantegia	2 Atari zabaleko gimnastika *	3	4 Berdetako istorioak*	5
	Erak	Erak	Erak	Erak		
6	7 Herritarren zientzia laborategia eta airearen kalitatea: nolako airea arnasten dugu?	8 Irteera: Iruñerriaren lehenaldi urruna*	9 Bizibxoko	10	11	12
	Erak	Erak	Erak	Erak		
13	14 Iruñeko harresietako fauna ezagutzeko irteera*	15 Ingurumen- jarduketetara bisita Txantrean*	16	17	18	19
	Erak	Erak	Erak	Erak		
20	21	22	23	24	25	26
	Erak	Erak	Erak	Erak		
27	28	29	30			

\*Jarduera hau EZ da Museoaan egiten. Barruan kontsultatu

**Erak** **Erakusketa:** Arimarako begiradak. Mundu jasangarriago baterantz.  
Apirilak 5 - Ekainak 24.

HERRITARREN ZIENTZIA LABORATEGIA ETA AIREAREN KALITATEA:

## NOLAKO AIREA ARNASTEN DUGU? LANDAREEK EMANDAKO EMAITZA INTERPRETATUZ



Iker Aranjuelo

**Apirilak 26, asteartea. 19:00.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Jardunaldi honen xedea da parte-hartzaileek ekarriko dituzten landareak biltzea, etxean/lanean bi hilabeteko epearen ondoren. Egun horretan, parte-hartzaile bakoitzak bere landarearen aireko partea moztu eta paperezko gutun-azaletan sartuko du. Aldi berean, parte-hartzaileek adieraziko dute landareak izan dituzten bi hilabeteetan zehar aipagarritzat jotzen duten edozein gorabehera mota. IdAB-CSIC institutuko langileek laginak bildu eta laborategira eramanen dituzte alikuota egiteko eta dagokion mineral-konposizioa aztertzeko.

**Iker Aranjuelo** ikerlaria da Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Nagusiko Agrobioteknologia Institutuan (IdAB-CSIC).

**Izen-ematea, aurrez:** saio hau landarea ikertzeko adoptatu zuten pertsoneri zuzenduta dago.

HERRITARREN ZIENTZIA LABORATEGIA ETA AIREAREN KALITATEA:

## NOLAKO AIREA ARNASTEN DUGU? LANDAREEK EMANDAKO EMAITZA INTERPRETATUZ



Iker Aranjuelo

**Ekainak 7, asteartea. 19:00.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Jardunaldi honetan, Agrobioteknologia Institutuko (IdAB-CSIC) langileek otsail-apirila bitarte hiriko hainbat tokitan hazi diren landareetan antzemandako metal astunen (eta beste elementu mineral batzuen) emaitzak emanen dituzte. Emaitzak azaltzearekin batera, herritarrek lortutako emaitzen interpretazioan parte hartzea bilatuko da. Horrela, herritarrek airearen kalitatean inplikaturako faktoreei buruzko espirtu kritikoa garatu ahal izanen dute. Aipatu gogoeta ideia-jasa batekin amaituko da, eta parte-hartzaileok gure hiriko airearen kalitatea hobetzeko eskura ditugun neurri zuzentzaileak proposatuko ditugu.

**Iker Aranjuelo** ikerlaria da Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Nagusiko Agrobioteknologia Institutuan (IdAB-CSIC).

**Izen-ematea, aurrez:** maiatzaren 24tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.



## ARROTXAPEA: ENERGIA POSITIBOKO AUZOA!



Jose Costero eta Rufino Hernández

**Apirilak 6, asteazkena. 19:00.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

**oPEN Lab**  
LEADING THE TRANSITION  
TO POSITIVE ENERGY  
IN RURAL AREAS



Hitzaldi honetan, oPEN LAB proiektu europarra aurkeztuko da, eta Arrotxapea energia positiboko auzo bihurtzeko oinarriak nola ezarriko dituen azalduko da, IWER eraikinaren eta San Pedroko etxebizitzaren birgaitze energetikoaren eta tokiko energia-komunitate baten eraketaren bidez.

**José Costero** Iruñeko Udaleko Estrategia Bulegoko zuzendaria da.

**Rufino Hernández** AH Asociados enpresako kidea eta EHUko Arkitekturako katedraduna da.

**Izen-ematea, aurrez:** martxoaren 23tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

HITZALDI-SOLASALDIA:

## ARROTXAPEKO IKASLEEK KLIMA-ALDAKETARAKO EGOKITZAPENEAN PARTE HARTZEN DUTE



Rochapea HLHIPko ikasleak, La Compasión-Escolapios ikastetxeko ikasleak (LHko 6. maila eta DBHko 4. maila) eta Iruñeko Udaleko teknikaria.

**Maiatzak 3, asteartea. 18:30.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Rochapea HLHIPko eta La Compasion-Escolapios ikastetxeko ikasleek klima-aldaketara egokitzeko irtenbide urbanistiko bat sortzen parte hartu dute, mugikortasunari, drainatzeari eta biodibertsitatea handitzeari lotutako helburuak barne hartzen dituena. Protagonistek kontatuko digute.

**Izen-ematea, aurrez:** apirilaren 19tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

MAHAI-INGURUA:

## NOLA INTEGRATZEN DA INGURUMEN-HEZKUNTZA HEZKUNTZA FORMALEAN?



Julia Ibarra Murillo, José Manuel Gutiérrez Bastida  
eta Fátima Andreo

**Maiatzak 5, osteguna. 19:00.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Garapen Jasangarriaren aldeko Hezkuntza herritarren eskumena da hezkuntza formalean. Ondorioz, esparru guztietan integratu behar da, eta horretarako, ezinbestekoa da irakasle guztiak sentsibilizatuta egotea eta, halaber, hori egiteko baliabideak eskura izatea. Ingurumen-hezkuntza eskolan integratzen ari da edo konpondu gabeko kontua da? Mahai-inguru honetan, hainbat ikuspegitatik egoera-diagnostiko bat egiten saiatu eta egiteke dagoen biderako pistak emanen dira.

**Julia Ibarra Murillo** Zientzia Esperimentalen Didaktikako irakaslea da NUPen, Irakasle-ikasketetako graduari.

**José Manuel Gutiérrez Bastida** Ingurumen Hezkuntzako aholkulari pedagogikoa da Ingurugela-CEIDAn.

**Fátima Andreo** Nafarroako Teachers for Future Spain Nafarroa ekimeneko kidea da.

**Izen-ematea, aurrez:** apirilaren 19tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

## FAMILIARTEKO LANTEGIA: GURE HIRIA BIR-NATURALIZATU



Mashaus

**EUSKARA:** Maiatzak 4, asteazkena. 17:30 – 19:30.

**GAZTELANIAZ:** Maiatzak 11, asteazkena. 17:30 – 19:30.

**ADINA** 5 urtetik gorako haurrak dituzten familiendako

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Iruña jasangarritasunaren ikuspegitik birpentsatzea planteatzen dugu familiendako jarduera batzuen bidez, non modu dibertigarrian hausnartuko baitugu pertsonak nola bizi garen hirian eta sentsibilizatuko baikara hiria birnaturalizatu eta horren aukerei buruz. Hirigintza eta jasangarritasuna tresna onak dira bizi garen mundua antzeman, diagnostikatu eta eraldatzeko.

**Mauhaus** hezkuntza artistiko-teknikoko proiektu bat da, zeinean lantegien bidez harreman afektiboak ezartzen baitira arkitekturarekin eta hiriaren hizkuntza aurkitzen baita.

**Izen-ematea, aurrez:** apirilaren 19tik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

## KONPONDU ZURE BIZIKLETA-BIZITXOKOA



Juanjo Iriarte

**Ostegunak: apirilak 28, maiatzak 12 eta ekainak 9  
18:00etatik 20:00etara.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bizikleten konponketari buruzko ezagutzak partekatzeko eta gure bizikleta prest jartzen dugun bitartean edo besteei laguntzen diegun bitartean ongi pasatzeko sortu da gune hau.

**Juanjo Iriarte** konponketetan aditua da eta bertaratzen direnei laguntza eta aholkuak emanen dizkie.

**Izen-ematea, aurrez:** egun hauetatik aurrera: apirilaren 12a (apirilerako), apirilaren 26a (maiatzerako), maiatzaren 24a (ekainerako). 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

## SOR EZAZU ZURE EGUZKI-SISTEMA



Izaskun Robledo

**EUSK:** Apirilak 20, asteazkena. 10:30 - 12:30.

**GAZT:** Apirilak 21, osteguna. 10:30 - 12:30.

**ADINA** 6-12 urte bitarte

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Lantegi honen bidez, haurrek eguzki-sistemari lotutako sormen- eta sorkuntza-tarte bat oparitzen ahalko diote euren buruei. Sorkuntzan askatasunez adierazteak, bakoitzak bere baitan daraman artista galaktikoaren esentzia sortaraziko du. Eguzki-sistema bereziaren katalogoa egiteko aukera izanen dute, eta ikertzaile handi gisa, aurkitzen dituzten planetei izena emanen diete.

**Izaskun Robledo** arteterapeuta eta hezitzailea da.

**Izen-ematea, aurrez:** apirilaren 5etik aurrera. 010 edo 948 42 01 00 (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) telefonoetara deituz.

## LORE-BANDEN LANTEGIA



Tania Gómez Rodrigo

**Apirilak 6, asteazkena. 18:00 – 20:00.**

**TOKIA** Donibaneko hiri-baratze komunitarioa  
Irantzuko Monasterioaren plaza (Iratxeko  
Monasterioaren atzealdea 37 eta 39)


Lantegi praktiko honetan ikusiko dugu lore-banda bat zer den eta baratze ekologikoan duen erabilgarritasuna. Banda diseinatzeko eta landatzeko oinarrizko ezagutzak ere landuko ditugu.

**Tania Gómez Rodrigo** Nekazaritzako ingeniari teknikoa da, eta Arrea elkarte agroekologikoko kidea.

**Izen-ematea, aurrez:** martxoaren 17tik aitzina:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

## IBILALDIA ELORTZ IBAIAN BARNA



**Gabi Berasategi (Ornitolan SL)**

**Apirilak 12, asteartea. 18:00 – 20:00.**

**TOPALEKUA** **Andres Benta (Aróstegui etorbidea)**

Elortz ibaia da Iruñeko udalerrian dugun bitxi ezezagunetako bat. Irteera honetan ezagutuko ditugu ibai-parkeko ekosistemak gordetzen dituen sekretuetako batzuk, hala nola Elortz ibaiaren igarobide ekologikoa eta alderantzizko ibaia.

**Gabi Berasategi** biologoa da, eta eskarmentu handia du Nafarroako bioaniztasuna ikertzen eta hedatzen.

**Izen-ematea, aurrez:** martxoaren 23tik aitzina:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan



## BERMIKONPOSTONTZI LANTEGIA



Tania Gómez Rodrigo

**Apirilak 27, asteazkena. 18:00 – 20:00.**

**TOKIA** Etxabakoitzeko hiri-baratzeak  
Urdánoz etxe-multzoa (Haur-eskolaren parean)

Lantegi praktiko honetan bermikonpostontzi erraz bat egingen dugu eta funtzionamendua eta mantentzea ikusiko dugu. Era berean, zizare-konpostaren erabileraz hitz egingen dugu.

**Tania Gómez Rodrigo** Nekazaritzako ingeniari teknikoa da, eta Arrea elkarte agroekologikoko kidea.

**Izen-ematea, aurrez:** apirilaren 7tik aitzina:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

Ibilaldi antzertua

## BERDETAKO ISTORIOAK: EGUZKI ATERA BERRIAREN ISTORIOAK



Sergio de Andrés Mutilva

**Maiatzak 7, larunbata. 12:00.**

**TOKIA** Yamaguchi parkea  
Topalekua: Planetarioko atea

Anima zaitetze Yamaguchi parkera nirekin etortzera eta Japoniako istorio onenak kontatuko dizkizuet inguru distiratsu batean eta eguzki atera berriarekin. Berezko historia duen parke batean paseatuko dugu, inoiz kontatu gabeko benetako sekretuak gordetzen baititu.

**Izen-ematea, aurrez:** apirilaren 11tik aitzina:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

## IRTEERA IRUÑEKO HEGAZTIAK EZAGUTZEKO



**Gabi Berasategi (Ornitolan SL)**

**Maiatzak 10, asteartea. 18:00 – 20:00.**

**TOKIA** Askatasun plaza (Karlos III.aren etorbidearen hasiera)

2009az geroztik Iruñeko Udala azterlan bat egiten ari da hiriko hegazti ugaltzaileen populazioaren bilakaera ezagutzeko. Azterlanean ibilbideak egiten dira hainbat auzotan barrena, eta itxaronaldiak egiten dira entzuteko geltokietan. Irteera honetan azterlana eta emaitzak gertu-gertutik ezagutzeko ibilbidea egingen dugu.

**Gabi Berasategi** biologoa da, eta eskarmentu handia du Nafarroako bioaniztasuna ikertzen eta hedatzen.

**Izen-ematea, aurrez:** apirilaren 20tik aitzina:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

# GIMNASTIKA ATARI ZABALEAN, HIRI-GIMNASIOAK ETA INGURUNEA UZTARTUZ



Amaya Saralegui

## DATA ETA TOKIA

• **Maiatzak 28, larunbata. 10:30 – 12:30.**

Iturrama eta Gaztelugibel (Topagunea: Iturramako Civivoxa).

• **Ekainak 2, osteguna. 17:30 – 19:30.**

Zabalguneko lorategiak eta Lezkairuko Zalduko hiri-gimnasioa (Topagunea: Zabalguneko Civivoxa).

Zahartze aktiboa sustatzen duen esperientzia, atari zabaleko aztura osasungarrien bidez eta hiriko berdeguneak probestuz. Begiraleak gidatuta, auzoak eta inguruak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuko ditugu intentsitate ezberdineko ariketa fisikoak egiteko.

**Izen-ematea, aurrez:** maiatzaren 7tik aurrera:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

## SENDABELARREI BURUZKO LANTEGIA



Josean Vidaurre

**Ekainak 1, asteazkena. 10:30 – 12:30.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Lantegi honetan irteera labur bat egingen da inguruetara, gertuko ingurumarietan aurki ditzakegun landareak ezagutzeko. Gero, Museora itzulitakoan, horien ezaugarri sendagarriak eta erabilera terapeutikoak hartuko dira hizpide, eta zalantza guztiei erantzunen zaie.

**Josean Vidaurre** nutrizionista eta fitoterapian aditua da.

**Izen-ematea, aurrez:** maiatzaren 12tik aurrera:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

Ibilaldi antzektua

## BERDETAKO ISTORIOAK ILARGIZ BETETAKO ISTORIOAK



Sergio de Andrés Mutilva

**Ekainak 4, larunbata. 12:00.**

**TOKIA** Media Luna parkea  
Topalekua: Sarasateri monumentua

Ilargia gelditzeko etorri da, gure parke maitean kokatu da hemen ezkututzen diren istorio guztiak entzuteko.

Zatozte nirekin, goazen pasean elkarrekin... Ez nazazue ilargia baino bakarrago utzi!

**Izen-ematea, aurrez:** maiatzaren 7tik aurrera:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

# IRTEERA: IRUÑERRIAREN LEHENALDI URRUNA



Fran Sanz Morales

**Ekainak 8, asteazkena. 18:00 – 20:00.**

**TOKIA**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP)  
ikasgelategiko aparkaleku nagusia  
(autobus-geralekuaren ondoan)

Irteera honetan gure lurraldearen paisaia-aniztasun handia eta haren atzean ezkutatzen den geoaniztasuna ezagutuko dira. Istorio honen protagonista nagusia ura da, balio kalkulazinezko baliabide naturala izateaz gain, eragile geologiko indartsua baita. Azkenik, gure inguruaren historia geologikoa berreginen dugu, eta hausnartu hain ingurune baliotsua zaindu eta babestearen garrantziaz.

**Fran Sanz** geologoa eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakaslea da.

**Izen-ematea, aurrez:** maiatzaren 19tik aurrera:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

## IRUÑEKO HARRESIETAKO FAUNA EZAGUTZEKO IRTEERA



Gabi Berasategi (Ornitolan SL)

**Ekainak 14, asteartea. 18:00 – 20:00.**

**TOPALEKUA** Zaldi Zuria (Redín plaza z./g.)

Hiri gotortua dugu Iruña. Multzorik horrek hiriarri ematen dion historiaz eta berezitasunaz gain, monumentu-barrutiari etekina ateratzen dioten hainbat espezie daude, horietako asko gizartearendako onuragarriak, betetzen dituzten funtzio ekosistemikoengatik. Iruñeko harresien alde ezagunenera hurbiltzen saiatuko gara.

**Gabi Berasategi** biologoa da, eta eskarmentu handia du Nafarroako bioaniztasuna ikertzen eta hedatzen.

**Izen-ematea, aurrez:** maiatzaren 25etik aurrera:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan



# INGURUMEN-JARDUKETETARA BISITA TXANTREAN



**Marina Jiménez Díez**

**Ekainak 15, asteazkena. 18:00 – 20:00.**

**TOPALEKUA** Txantreako Liburutegiko atea  
(Arriurdiñeta plaza 4)

Ibilaldia Txantrean barna, ingurumen-izaera askotariko hainbat ekimen ezagutzeko:

- Energia: liburutegiko panel fotovoltaikoak, Txantrea Heat-Efidistrict, etab.
- Bioaniztasuna: Munduaren parkea, kaleetako landaredia, etab.
- Klima-aldaketaren aurrean egokitzea eta hura arintzea: Ezkaba kaleko pasabide iragazkorra, etab.
- Mugikortasuna: bizikleta elektrikoak alokatzeko sistema, etab.

**Marina Jiménez** Iruñeko Udaleko Ingurumen teknikaria da (Agenda 21 zerbitzua).

**Izen-ematea, aurrez:** maiatzaren 26tik aurrera:

- 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).
- [www.pamplonaescultura.es](http://www.pamplonaescultura.es)
- Civivox sareko zentroetan

## ZINEMA ETA INGURUMENEN NAZIOARTEKO JAIALDIA



**Maiatzaren 16an (astelehena), 17an (asteartea),  
18an (asteazkena) eta 19an (osteguna), 19:30etan.**

**TOKIA** Golem Baiona zinematokiak  
Sarrera librea, aldeztu aurretik gonbidapenak  
txarteldegian hartuta

Ecozine berriz ere Iruñean da; sentitzeko, hausnartzeko eta jarduteko gonbidapena. Zinema gizartea eraldatzeko arte gisa. Ingurumeneko gaiak jorratzen dituzten lau saio dira, eta filmak egin dituzten taldeetako kideekin filmen inguruan hitz egiteko aukera izanen da.

**Argibide gehiago hemen:** [www.educacionambiental.pamplona.es](http://www.educacionambiental.pamplona.es)  
[www.festivalecozine.es](http://www.festivalecozine.es)

## ARGAZKI-LEHIAKETA: IRUÑA JASANGARRIA



**Hasiera-data: 2022ko maiatzaren 2a**

**Amaiera-data: 2022ko maiatzaren 20a**

**NORI ZUZENDUA** 16 urtetik gorakoak

Lehiaketak gure hiriak jasangarritasunaren arloan dituen erronka eta aurrerapen nagusiak erakusten dituzten argazkiak bilatzen ditu. Ekimenak xede du parte-hartzaileek beren ingurua aztertu, planetarekin dugun konpromisoan aurrez aurre ditugun erronkak ikusi eta beste pertsoneri horrek duen garrantzia eta inpaktua helarazteko gai den argazki batean harrapatzea.

**Prozedura:** parte hartu nahi dutenek beren argazkiak [educacionambiental@pamplona.es](mailto:educacionambiental@pamplona.es) helbidera bidali behar dituzte, gaian 'Iruña Jasangarria Argazkia' adieraziz.

### **Argazkiaren betekizunak:**

- Gehienez ere bi argazki onartuko dira parte-hartzaile bakoitzeko, argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketetan erabilitakoak.
- Irudiaren edo argazkiaren formatuak .jpg izan behar du.
- Fitxategiaren izenak izenordea eta argazkiaren izenburua izan behar ditu. Adibidea: izenordea\_argazkiaren izenburua.jpg.

**Bete beharreko datuak:** Argazkiarekin batera ondoko datu hauek eman beharko dira:

- Parte hartzailearen izen-abizenak eta adina.
- Helbide elektronikoa.
- Argazkiaren izenburua.
- Argazia egin den lekua.

**Epaimahaia:** Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Fermín Alonso (Proiektu Estrategikoetako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko Alorreko zinegotzia), Alejandro Astibia (Proiektu eta Obretako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko Alorreko zuzendaria) eta María Martín (Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuko koordinatzailea).

**Saria:** Argazki irabazleak 200 euroko balioa duen bizitza jasangarriago bati ekiteko kit bat jasoko du sari gisa.

**Emaitza:** posta elektronikoko bidez jakinaraziko zaio irabazleari.

*Ekimen parte-hartzaile honetan parte hartzen dutenek Iruñeko Udalari argazki horien erabilera lagatzen diotela onartu beharko dute, erakundeari eskubidea emanez irudiak egoki kudeatu, gorde eta hedatze aldera behar diren berariazko tratamendu-irizpideak ezartzeko.*

## MARRAZKI-LEHIAKETA: “PLANETA BAKAR BAT”



**Hasiera-data: 2022ko maiatzaren 2a**

**Amaiera-data: 2022ko maiatzaren 20a**

“Planeta bakar bat” da 2022ko Ingurumenaren Mundu Eguneko lema, zeinak modu jasangarrian eta naturarekin harmonian bizitzera gonbit egiten baitu. Harreman hori eta bizimodu garbiago eta jasangarriagoetara gidatuko gaituzten eguneroko aukerak islatzen dituzten marrazkiak bilatzen ditugu.

**NORI ZUZENDUA** 6 - 12 urte

Adinaren arabera, kategoria ezberdinak egingen dira:

- 3 - 6 urte
- 6 - 9 urte
- 9 - 12 urte

**Prozedura:** Parte hartu nahi dutenek beren marrazkiak gutun-azal batean aurkeztu beharko dituzte, honako hau adierazita:

- “Marrazki lehiaketa: Planeta bakar bat”.
- Parte-hartzailearen izen-abizenak.
- Adina.
- Harremanetarako telefonoa.

Gutun-azalak marrazkiekin Ingurumen Hezkuntzako Museoa aurkeztuko dira (Errotazarko k., zk.g.).

**Marrazkiaren betekizunak:**

- Gehienez ere bi marrazki onartuko dira parte-hartzaile bakoitzeko, argitaratu gabeak eta beste inongo lehiaketetan erabilitakoak.
- Marrazkiaren tamaina DNIA4 orri bat izanen da.

**Epaimahaia:** Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Fermín Alonso (Proiektu Estrategikoetako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko Alorreko zinegotzia), Alejandro Astibia (Proiektu eta Obretako, Mugikortasuneko eta Jasangarritasuneko Alorreko zuzendaria) eta María Martín (Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzuko koordinatzailea).

**Sariak:** Kategoria bakoitzeko irabazleak 75 euroko ingurumenari buruzko hezkuntzako material eta jolas sorta bat jasoko du.

**Emaitza** telefonoz jakinaraziko zaio irabazleari.

*Ekimen parte-hartzaile honetan parte hartzen dutenek Iruñeko Udalari marrazki horien erabilera lagatzen diotela onartu beharko dute, erakundeari eskubidea emanaz irudiak egoki kudeatu, gorde eta hedatze aldera behar diren berariazko tratamendu-irizpideak ezartzeko.*

## ARIMARAKO BEGIRADAK.

Mundu jasangarriago baterantz



Itziar Insausti

**Apirilak 5 – Ekainak 24**

**Inaugurazioa: apirilak 5, asteartea. 18:30.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Arimarako begiradak Himalayako eta Pamirreko mendietan bizi diren nomaden eta indigenen aberastasuna baloratzen eta gure balioak bizitza jasangarriago baten alde zalantzan jartzera gonbidatzen duen argazki-saila da. Itziarrek ikusi du nomadek eta indigenek natura deitutako gure ingurunearekiko duten lotura oso egokia dela gaur egun, eta gai garrantzitsuak planteatzen ahal dizkigula deskonexioko krisi sozialen eta krisi ekologiko globalaren erdian.

Erakusketa aurkezteko lantegia “Slow art” ekimenaren nazioarteko astean eginen da. Saio horrek bizitza jasangarriagoen alde egiteko garrantzian sakondu nahi du, esperientzia intimista eta sakon batetik.

**Itziar Insausti** antropologoa eta baso-terapien gidaria da.

**Izen-ematea, aurrez, inauguraziorako:** martxoaren 22tik aurrera. 010 telefonoan (948 42 01 00 mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero).

## JOSTAILUAK TRUKATZEKO MERKATUA



**Apirilak 22, ostirala. 11:30 - 13:00.**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Merkatuaren xedea da jostailuen trukea sustatzea, eta horrela, berrerabilpena bultzatzea, kontsumo-alternatiba bat eskaintzea eta jostailuen bitzta luzatzea. Haurrek dagoeneko erabiltzen ez dituzten jostailuak ekar ditzakete, betiere egoera onean badaude -edozein jolas, liburu, ipuin, puzzle eta abar izan daiteke-, eta horiek trukatzeko ahalko dituzte beste neska-mutil batzuek eramandako objektuekin. Haurrek -familiek lagunduta- erabakiko dute nola egin trukea; hala ere, Ingurumen Hezkuntzako taldea arduratuko da txikienak zeregin horretan gidatzeaz.



## DIRURIK GABEKO TRUKE-AZOKA TXIKIA



**Maiatzaren 24tik 27ra, Museoaren ohiko ordutegian**

**TOKIA** Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Erostearen aurrean alternatiba bat eskaintzen da, berrerabilpena sustatuz. Horrela ingurumena zaintzen laguntzen da, lehengaiak eta energia aurrezten direlako. Azokan denetarik aurki daiteke: arropa, zapatak, beira-aleak, liburuak, jostailuak, etab. Parte-hartzaileek egoera onean dauden baina erabiltzen ez dituzten gauzak ekartzen dituzte, besteendako interesgarriak izanen direlakoan. Aste bakoitzean sei gauza trukatu ditzakete gehienez ere, betiere antzeko balioa duten objektuekin. Trukea Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak gainbegiratu du, era orekatuan eta ordenatuan egiten dela bermatzeko.

# MUSEOA ZEUREGANATU

Museoak bozgorailu gisa jokatu nahi du eta elkarteez, ikastetxeek eta kolektiboek egiten dituzten ingurumen- eta gizarte-proiektuak zabaldu. Horretarako, bertako instalazioak eta hedapen-bideak erabiltzeko aukera ematen du unean uneko ekimen, lan, erakusketa, hitzaldi eta abarretarako. Hitzaldi-aretoa, ikasgelak, bilera-gelak eta erakusketa-gunea ditugu.

[educacionambiental@pamplona.es](mailto:educacionambiental@pamplona.es)

